

Hementxe bidaltzen dizkizuegu zenbait ohar ezberdin:

- **2016-17 Ikasturterako BEKAK:** Beka eskaera egiteko Sistema informatiko berria ezarri dute. Den-dena on line egin beharko dugu. Beraz hasi aurretik pazientzia eskatu behar dizuegu. Eskaerak ikastolan aurkezteko epea: **Urriaren 1etik urriaren 27 bitartean [informazio gehiago hemen](#)**. Eskaerak egiteko 2 bide ezberdin jorratu behar ditugu:
 - **Iaztik BEKA onartuta duzuenok:** Oraingoan, EZ DUTE zuen beka eskaera paperean bidali, beraz:
 1. bulegoan momentuan zuen eskaerak banan-banan inprimitu beharko ditugu eta zuoi eman datuak osatu, zuzendu eta sinatuta aurkeztu ahal izateko.
 2. **Zerbait aldatuko** baduzue, dokumentu ofizialetan oinarrituta egon beharko da, eta horren kopiak aurkeztu beharko dira (familia liburua, familiaren errolda agiria, familia ugariko liburua, tutore edo ikaslearen NAN kopia, elbarritasun agiria, banaketa erabakia,...).
 - **Beka BERRIA eskatu behar duzuenok:** Oraingoan, EZ DUTE zuen beka eskaera egiteko paperik bidali. Den-dena ON line egin beharko dugu, beraz:
 1. zuek etxetik Hezkuntzako webean erabiltzaile moduan alta eman eta eskaera egin beharko duzue [eskaera on line](#).
 2. Etxean eskaera inprimitu, paperean akatsak zuzendu, sinatu eta bulegoan aurkeztu.
 3. **Datu guztiak** dokumentu ofizialetan oinarrituta egon beharko dira, eta horren kopiak aurkeztu beharko dira (familia liburua, familiaren errolda agiria, familia ugariko liburua, tutore edo ikaslearen NAN kopia, elbarritasun agiria, banaketa erabakia,...).

Ez utzi mesedez azken momenturako.

- **Ikastolako erreziboak:** Hilero, lehen astean, erreziboa banketxera bidali baino lehen, kontu korronteen titular guztiei ikasleen erreziboen INFORMAZIOA bidaliko dizuegu, kobratuko zaizkizuen kontzeptuak zeintzuk diren jakiteko.

- **Parkina:** Goizeko 8:00etan ikastolara autoz etortzen garenok sortzen ditugun auto ilarak ekiditeko MESEDEZ ikasleak deskargatzeko erabili beheko parkina eta errotonda. Gora igotzeagatik aldapan eta errepidean sortzen diren ilaretan AUTOBUSA minutuak gelditu egoteagatik ikasleak berandu ailegatzen dira. Eguerdiko 15:00etan goiko errotondan autobusak, ikasleak eta autoak gelditzeagatik ere, egoera oso arriskutsuak sortzen dira. Mesedez, ikasleak beheko parkinean ITXARON, ez blokeatu goiko errotonda autoak bertan aparkatzen. Guztiok eskertuko dugu. [parkinerako irizpideak](#)
- **Ikasleen istripuak.** Ikasle batek ikastolako orduetan istripurik izanez gero, IKASLARIN aseguruaren medikua eta Quirón ospitala erabili behar dugu. Mesedez, EZ eraman Osakidetzako larrialdietako zerbitzuetara guk bideratua ez bada eta ezarritako protokoloa jarraitu. [protokoloa hemen](#).

Gogoratu ikastolari buruzko informazio ere www.anderdeunaikastola.eus Web orrialdean eguneratua daukazuela (Jantokiko menuak, Autobus zerbitzua, Eskola egutegia, ..).

Eskerrik asko.

Karmen Galdeano. Idazkaritza.